



Mertxe Jimeno | Nazaret Zentroa (Donostia- San Sebastián)

2. Saria Batxilergoa (NzOdisea)

2. Saria Zikloak (Space Quest)

3. Saria Zikloak (NzDa3)

Argazkiak: Sara Santos

“Kosmodiseako gauzarik onena talde-lana eta teknologia berrien erabilera sustatzen dituela da”

Mertxe Jimenok, Kosmodisea 2007-2008 edizioko azken fasean hainbat sari lortu dituzten Nazaret Zentroko talde desberdinen izenean, orokorrean, ekimen honetan izan duten parte-hartzea dibertigarria, sortzailea eta, batez ere, didaktikoa izan dela adierazi du. *“Izugarri sustatzen du talde-lana eta teknologia berrien erabilera. Ikasleek parte hartuz ikasten dute eta ikasteko parte hartzen dute”*.

Horretaz gain, Nazaret Zentroan azpimarratu dutena gelatik kanpo lan egiteak eta beste talde batzuk nola lan egiten duten ezagutzeak duen garrantzia izan da. Mertxe Jimenok dioenez, *“talde guztien artean egindako lanek, parte-hartzaileen artean egon den konpromiso-maila altua adierazten dute.”*

“Garrantzitsuena parte hartzea” dela jakitun, Kosmodisean hainbat taldetan parte hartu duten Nazaret Zentroko 24 ikasleek *“oso ondo”* jaso dituzte beren sariak, eta irakasleen iritziz, gazteek ekimen honetan izan duten parte-hartzea oso positiboa izan da hainbat ikuspuntutatik. Horien artean, Kosmodisea *“eztabaidarako, lankidetzarako eta lanak banatzeko”* tresna oso baliagarria izan dela azpimarratu dute, baita *“taldearen harremanerako eta espiritu ekintzailerako”* ere.

TEKNOLOGIA BERRIEN HEDAPENA

- Zein da 2007-2008 Kosmodiseatik azpimarratuko zenukeen gauzarik onena?
- *Gure ustez, Kosmodiseak guztiok adostutako ideia baten inguruan lan egiteko eskaintzen duen aukera azpimarratuko genuke. Bestalde, oso positiboki baloratzen dugu Kosmodiseako taldetik uneoro jaso dugun laguntza eta programa honek teknologia berriengan eragiteko duen ahalmena.*
- Zein alderdi hobetu beharko lirateke, zure ustez?
- *Hobetzeko puntu gisa, lanak aurkezteko epeak eskolen egutegiarekin bat etortzea proposatzen dugu. Kontuan izan beharko litzateke martxotik aurrera, Bigarren Zikloko ikasleak jada ez direla eskolan egoten. Praktikak egiten dituzte lantokietan. Bestalde, apiril bukaeran, maiatz hasieran, 2. Batxilergoko ikasleak azken txanpan daude, selektibitatea dela eta eurentzat ikasturtea motzagoa baita.*

Azken proposamen gisa, Mertxe Jimenok, agian, ebaluazioak, barne-izaera izateaz gain, parte hartzen duten taldeetatik kanpoko elementuren bat izan beharko lukeela dio, alde tekniko-pedagogikoak neurtuko lituzkeena. Gainera, Nazaret Zentroak datozen edizioetan parte hartzeko borondatea adierazi du, “*geroz eta talde gehiagok parte har*” dezaten saiatuz, “*esperientzia oso positiboki baloratu baitugu.*”

